

11/2024 INSTRUKZIOA, ZEINAREN BIDEZ "LARUNBAT ETA JAIEGUNETAKO BISITA-PASE MEDIKOA" JARDUERARI DAGOZKION KUDEAKETA ASISTENTZIALA HOBETZEKO PROGRAMETAN PARTE HARTZERA BIDERATUTAKO PRODUKTIBITATE-OSAGARRIAREN ZENBATEKOAK ZEHAZTEN DIREN.

2012. urtean, Osakidetza erakundeetan planteatutako egoera erregularizatzeko asmoz, larunbat eta jaiegunitako bisita-pase medikoaren jardueraren ordainketari dagokionez, larunbatetan eta jaiegunitan egin beharrekoak diren bisita-pase medikoen eta alden ohiko jarduerari euste aldera, kudeaketa asistentziala hobetzeko programetan sartutako unitateetarako aurreikusitako produktibitate-osagarriaren aplikazioa artikulatu zen, uztailaren 21eko 206/1992 Dekretuan eta hura garatzen duen egun bereko Aginduan arautua.

Osagarria aplikatzearen helburua esleitzeko eran irizpide uniformeak ezartzea zen, Osakidetza zuzendari nagusiaren 3/2001 Instrukzioan ezarritako ildoekin bat etorritik. Instrukzio hori ezohiko jarduerari programatuari (autokontzertazioa) buruzko informazio-sistemei eta kudeaketari buruzkoa da, eta jarduerari horretan sartzeko edo kanpoan uzteko irizpideak finkatzen ditu, goian adierazitako araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera.

Ordutik denbora asko igaro denez, orain jarduerari hori berrikusi eta eguneratu egin behar dela eta modu korporatiboan aitortzen ekonomikoa egin behar dela planteatu da, horrekin bermatzeko larunbatetan eta jaiegunitan bisita-pase medikoa behar bezala egiten dela eta pazientei alta ematen zaiela, beharrezkoa den Osakidetza espezialitate medikoetan eta zerbitzu-erakundeetan, ezohiko jarduerari programatu gisa.

Azaldutakoaren ondorioz, dagokion negoziazio-prozesua aurretik eginda eta SME Euskadiko Sendagileen Sindikatuaren oniritzia izanda, 2024ko irailaren 10eko Osasuneko Mahai Sektorialean berariaz adierazitakoa, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari dagozkion eskumenez baliatuz, honako instrukzio hau eman da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 11 b) artikuluari eta 2. artikuluari jarraikiz eta 1992ko uztailaren 21eko Aginduaren Azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoa betez:

INSTRUKZIOA:


Lehenengoa. - Uztailaren 21eko 206/1992 Dekretuan eta hura garatzen duen data bereko Aginduan araututa dagoen produktibitate-osagarria, kudeaketa asistentziala hobetzeko programetan sartutako unitateentzat aurreikusitakoa, larunbat eta jaiegunitako bisita-pase medikoko jarduerari aplikatzeko irizpideak zehaztu egiten dira, honako hauen arabera:

- Programatutako ezohiko jardueraren (autokontzertazioa) irizpide orokorren aplikazioa
- Larunbatetako eta jaiegunetako bisita-paseak ezohiko jarduera programatu gisa konfiguratzeko kasuak kasuko zerbitzuetan, eta paziente guztien bisita eta dagozkion altak barne hartzen dituzte.
- Gauzatzen diren moduluak ordainduko dira, lanaldi arrunteko orduak bete ondoren.
- Jardueraren ordainketa ezin izango da bikoiztu. Hau da, guardia kontzeptuagatik ordainsaria jasotzen bada, aldi horretan ezin izango da ordaindu bisita-pasearen jarduera.

Bigarrena. – Fakultatiboei instrukzio honen xede den bisita-pasearen jardueratik eratorritako produktibitate-osagarri gisa ordaindu beharreko zenbatekoak honako hauek izango dira:

- 1) Larunbateko bisita-pasearen modulurako 420 euro ordainduko dira. Bada, lanaldi arrunteko orduak bete ondoren jarduera hori gauzatzen den larunbat guztietan aplikatuko da.
- 2) Igandeko bisita-pasea ez da beharrezkotzat jotzen larunbateko bisita-pasea egin ondoren, beraz, oro har, aurrerago aurreikusitako salbuespenean izan ezik, ez da beste zenbatekorik ezartzen egun horretarako.
- 3) Aste Santuan eta Gabonetan, segidako hainbat jaiegun dauden garaiak izanik, bisita-pasea jaiegunean egiten bada, 508 euroko zenbatekoa aplikatuko da jaieguneko bisita-pase modulurako.
- 4) Aurreko 2) puntuan ezarritakoa gorabehera, segidako hainbat jaiegunetako aldiatarako, Giza Baliabideen Zuzendaritzak ohar osagarri bat igorriko du urtean behin, urteko lan-egutegia ikusita, horren bitartez finkatzeko zein jaiegunetan izango den aplikagarria, salbuespenez eta Aste Santutik eta Gabonetatik kanpo, jaieguneko bisita-pasearen moduluko 508 euroko zenbatekoa.

Hirugarrena. - Instrukzio honek 2024ko irailaren 11tik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetzaaren intranetean argitaratuko da.

 **Osakidetza**
Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 11

ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL

Izpta.: Susana LÓPEZ ALTUNA
OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO
ZUZENDARI NAGUSIA

**OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIAREN 11/2024
INSTRUKZIOAREN OHAR OSAGARRIA****GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA****2024KO AZKEN HIRUHILEKOA**

Osakidetza Zuzendari Nagusiaren 11/2024 INSTRUKZIOAREN bidez, "larunbat eta jaiegunetako bisita-pase medikoa" jarduerari dagozkion kudeaketa asistentziala hobetzeko programetan parte hartzera bideratutako produktibitate-osagarriaren zenbatekoak zehaztu dira.

Instrukzioak honako hau dio 2.2) puntuan:

"segidako hainbat jaiegunetako aldietarako, Giza Baliabideen Zuzendaritzak ohar osagarri bat igorriko du urtean behin, urteko lan-egutegia ikusita, horren bitartez finkatzeko zein jaiegunetan izango den aplikagarria, salbuespenez eta Aste Santutik eta Gabonetatik kanpo, jaieguneko bisita-pasearen moduluko 508 euroko zenbatekoa."

Hori dela eta, Ohar honen bidez finkatzen da 2024ko azken hiruhilekoko zein egunetan aplikatuko den, salbuespen gisa eta Aste Santuko eta Gabonetako aldietatik kanpo, 508 euroko zenbatekoa jaieguneko bisita-pase modulurako:

- Larunbata, 2024ko urriaren 12a

**NOTA COMPLEMENTARIA DE LA INSTRUCCIÓN Nº
11/2024, DE LA DIRECTORA GENERAL DE
OSAKIDETZA****DIRECCIÓN DE RECURSOS HUMANOS****ÚLTIMO TRIMESTRE DE 2024**

Mediante INSTRUCCIÓN Nº 11/2024, de la Directora General de Osakidetza, se determinan las cuantías del complemento de productividad destinado a la participación en programas de mejora de gestión asistencial de "pase de visita médica en sábados y festivos".

En su punto segundo.2) establece lo siguiente:

"cuando se den periodos concatenados de días festivos, mediante nota complementaria de la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza, con carácter anual, a la vista del calendario laboral, se fijarán, en su caso, los festivos en que, excepcionalmente y fuera de los periodos indicados de Semana Santa y Navidad, se aplicará el importe de 508 euros por el módulo de pase de visita de festivo"

Por ello, mediante la presente Nota, se fijan los días del último trimestre de 2024, en los que, excepcionalmente y fuera de los periodos indicados de semana santa y navidad, se aplicará el importe de 508 euros por el módulo de pase de visita de festivo:

- Sábado, 12 de octubre de 2024

 **Osakidetza** Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 11
En Vitoria-Gasteiz, a 11 de septiembre de 2024

Josune Retegi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Izpta./Fdo.: Josune RETEGI ORMAZABAL
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCOOSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD